

EPIGRAFEAK	SARTUTAKO INFORMAZIOA
Izena	Ermitan nagusi den eta kultua egiten zaion santu edo santaren izena adierazten da. Baseliza batzuk izen bat baino gehiago dute. Zenbait kasutan, hori horrela da bere garaian inguruan egondako eta gaur egun desagertutako beste ermita baten izena jaso zuelako. Datu hori dokumentazio historikotik edota tokiko tradizioetik bertatik lortzen da. Ermita bateko izenaren aldaketa ere behatu ahal da, herriaren debozio aldatzen doan heinean. Ez da pentsatu behar herriaren debozioa mugiezina dela. Askotan, herriak lehen izen hau gogoratzen du, santu titularra beste bat den arren. Baselizaren izenarekin batera, inguruan santuak, santak edo baseliza berak zein izen duen ematen saiatu gara.
Parrokia	Ermita guztiak sakramentu-parrokia baten lurralde-eremuan dago, tokian tokiko informatzaileek adierazten duten moduan. Gainera, ermita askoren errituak parrokiarekin lotuta egon dira, errogatiben edo letanien prozesioek garbi uzten duten moduan. Urteko egun jakinetan parrokiaren aterpetik abiatu eta ermitan amaitzen zuten. Amaitzeko, ermiten gaineko informazio guztia parrokiako artxibategietan dago. Zenbait landa-eliza XIX. mendean parrokia izateari utzi zioten eta gaur egun baseliza moduan kontuan hartzen dira. Ohikoagoa da garai batean ermitak izan zirenak eta geroago parrokia izan direnak. Sarri, ermiten izen batzuk geroago bere inguruan eraikitako parrokien izen titullarrak izatera pasatu dira. Kasu hauetan, kokapen berria edo lehengo kokapena adierazi dira, aztertutako baselizan prozesu horiek eman badira behintzat.
Kokapena	Baseliza udalerriaren barnean zein auzotan dagoen adierazten da. Gainera, mendian, hegalean, talaian, hirigunean edo landa-gunean dagoen adierazten da. Azken kasu honetan, ermitatik gertuen dagoen baserri-etxearen izena aipatzen da berarekin izan dezakeen lotura funtzionalagatik edo historikoagatik. Hiriguneko ermiten kasuan, kalearen izena eta inguruko eraikinik aipagarrienak aipatzen dira. Baseliza kobazuloaren, iturri baten edo hilobi-eremutik gertu ba ote dagoen ere esaten da. Tokiko tradizioaren arabera antzinako galtzadak edo bideak adierazten dira.
Orientazioa	Ermitaren eraikinak duen orientazioa sartu da. Bizkaiko ermita eta santutegi gehienak mendebaldera, hau da, antzinako aldarea Eguzkia irteten den aldera begira dago.
Sarbidea	Ibilbidea ezaguna den leku batetik abiatuta adierazi da eta oinez zenbat distantzia dagoen kilometrotan edo minututan esaten da. Aukera egon denean gogoratutako antzinako bideak, bai eta bere izenak ere aipatu dira.
Deskribapena	Deskribapen arkitektonikoak oso laburrak dira. Oinaren neurriak, kultura zuzenduriko hormen neurriak dagokie, aterpeak edo bestelako eranskinak kontuan hartu gabe. Deskribapena argazki batekin lagunduta doa. Baseliza guztien ezaugarri komun deskriptiboak zein altzarien deskribapena ere sartzea ekiditu egin dira.
Irudiak	Ermiten barneko irudiak eta margo-lanak kontu handiz identifikatu dira.
Artapena	Eraikinaren aztarnarik ez dagoenean ermita <i>desagertu</i> dela azalpenaren hasieran adierazi egin da. Estalkia erori denean edo bere hormen zati batzuk bakarrik geratzen direnean baseliza <i>erortze</i> dagoela adierazi da. Artapen-egoeraren inguruan bestelako estimazioak ere egin dira. Kasu horietan <i>bertan behera utzita</i> edota <i>eraberrituta</i> dagoela adierazi da.
Jaia, kultu eta errituak.	Epigrafe honetan ondokoak sartzen dira: * <i>Jai patronala</i>: Jai patronala eta kultu-ekimenak ospatu egiten diren dataren berri ematen da. Ospakizun horretan mokadua egoten da eta herritarrek parte hartzen dute. Ondoren, erromeria egon ohi da.

	* <i>Babes- eta bedeinkapen-errituak</i>: Barnerago kokatutako sentimenduak, kultuan nagusi diren santuekiko eta ermitekiko sinesmenaren munduko sentimenduak lantzen dira hemen. Sinesmen hauek dira ermitaren izaeraren oinarria. * <i>Sinesmen-medikuntza eta ondarearen babesak</i>: Ermita askoren santu titularrak <i>santu osagile</i> legez onartuta daude: eztarriko minarenak, belarrietako minarenak, etabarrenak. Badira santu <i>babesleak</i> ere: haurrenak, etxe-abereenak edo uztenak. Zenbait kasutan, santu hauen parte hartzea leku sakratuan bertan dauden elementuekin eskatzen da: ur bedeinkatua, botozko lanpararen olioak, kanpaiak, irudiak bere ezaugarriekin, baselizetatik hurbil dauden iturriak edo putzuak. Jai-eguna ospatzen denean, ermita batzuetan, gerora pertsonen, animalien edo uzten babesle izango diren objektuak bedeinkatzeko ohitura egoten da. Jai-egunak direla eta egiten diren zoroen, lainoen edo itsasoaren bedeinkapena ere adierazten dira. * <i>Errogatibak</i>: Euria egiteko errogatibak nekazariak eurek eskatuta antolatzen ziren. Lehen ospatzen ziren batzuk eta gaur egun ospatzen diren beste batzuk egutegi liturgikoan sartuta daude. Datu horien berri ematearekin batera, errogatiba amaitutakoan eskaintzen mokadua ere aipatzen da. * <i>Irudien prozesio-garraioak</i>: Euria eskatzeko asmoz, ermita batzuetan, santuaren irudia parrokiaraino eramaten zen eta bertan denbora-tarte bat ematen zuen. Batzuetan, izaera magikodun errituak, santuaren irudia ibaian sartu edo irudia urez ihinzatu esaterako, egin da. * <i>Sinesmenak eta kondairak</i>: Ermitarekin lotutako sinesmenak eta kondairen berri ere ematen da. Kondairetan, kasu batzuetan, jentilak, lamiak edo beste izaki bizidun mitikoak agertzen dira. Beste batzuetan, berriz, ermita bat eraikitzeke orduan materialek jasandako garraioa, agerpenak, mirariak, etabar agertzen dira.
Oharrak	Arestian aipatu eza diren datuak biltzen dira.